



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEK  
JAINKO AITA  
AGERTZEN  
DIGU**

## **4. ERANSKINA**

**ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT**

**Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

## Jesusek Jainko aita agertzen digu

Ondoren landuko dugunaren sarrera den bideo hau <sup>1</sup> ikusi:



**Bideoa ikusteko,  
klik egin irudian**

Jainkoarekin dugun hartu-emanu estu lotuta dago Berataz helarazi diguten irudiarekin edo bizitzan arrastoa utzi diguten esperientzia positibo edo negatiboekin. Norbait Jesusengana, bere berri on eta bizitzara bihotz-zabaltasunez hurbiltzeaz batera, Jesusek, hitzez eta egitez, Jainkoak sortutako guztiari, eta bereziki gizon eta emakume guztiei, dien egundoko maitasunaz hitz egiten digula antzematen du. Maitasunez sortu gaitu, gu biziz betetzea nahi duen Maitasunez.

Jainkoak doan eta bihotz-zabaltasunez maite duela jakitea da sinestedunak bizi duen esperientziarik sendo eta sakonenetakoa. "Jainkoa maitasuna da", adierazten dugu pozarren Berarengan dagoen on guztia barne hartuko duen esamoldearekin definitu nahi dugunean. Horrela baieztatzen du gure fedea, Jesusek Jainkoaz duen esperientzia baitu abiapuntutzat. Jainkoaren ontasunak liluratuta bizi da Jesus. Beretzat, Jainkoa ona eta errukiorra da.

Jainkoarengan sinesten dugunok jakin badakigu Berak etengabe zaintzen duela pertsona bakoitza eta sentitu ere horrela sentitzen dugu. Inoiz ez gaitu bertan behera uzten. Beti laguntzen digu bere Aita maitasunez eta hamaika erataria erakusten digu bere samurtasuna. Bera beti dugu ondoan, gauzak ondo nahiz hala-moduz doazenean: "Maitasun eta errukiz inguratzen nau... Nola aita seme-alabentzat errukior, hala Jauna begirune diotenentzat errukior" (Sal 103. 4. 13).



Jainkoaren maitasunezko zainketak experimentaturik, seme eta alaba bezala haztea suspertzen diguten konfiantza eta autoestimua sortuko dira guregan. Aita izanik, bedeinkatu egin dezakegu, laguntza eska diezaiokegu, eskerrak eman, miretsi... Uneoro jo dezakegu Berarengana inoiz ez digula bizkar emango jakinda.

Jesusi barru-barrutik ateratzen zaio Jainkoari zuzentzen dion 'Abba', 'Aita' deitura. Jesusentzat, Jainkoa gizon eta emakume guztiengandik oso gertu dagoen Norbait da, guztiok baikara bere seme eta alaba. Ez da Jainko beldurgarria, ez da Jainko hotz eta ahalguztiduna, ez da gizakiaren etsai den Jainkoa. Jainko Aitaren maitasunak biziz bete nahi gaitu. Jainkoak bizia, bizi ugari gainera, nahi du izaki guztientzat.

Jaio berritan bizi dugu gurasoen eskutik maitasunezko esperientzia bizi-bizia. Beraiek beren maitasunez babesten gaituzte, zaindu, lagundu, elikatu egiten gaituzte, lehen urratsa ematen irakasten digute. Gurasoek maite gaituztela jakinda has gaitezke Jainkoak orain eta beti digun maitasun askoz sendoagoa ulertzen.



Jesusen Jainkoaren bereizgarria ez da bere ahalmena, edo jakituria, gizaki guztien aldeko, eta bereziki atsekabe, bidegabekeria eta babesgabetasunik latzena jasaten duten bere seme-alaben aldeko, ontasun eta errukia baizik. Jainko on hau, gertuko Jainkoa da Jesusentzat, bere izaki guztiak zaintzen dituen aita, txikiei agertzen zaiena eta galdutakoak bilatzen dituen. Jainko hau bizitzaren bihotzean dago, Berarekin ez gara inoiz bakarrik, babesgabe edo galduta sentitzen. Eta maitatu eta zaindu egiten gaituen gertuko Jainko hori guztiona eta guztiontzat da, horregatik dihardu bere seme eta alaben bila, edonon egonik ere, galduta egonik ere, Berari bizkar emanda bizi badira ere. Gizaki bakar bat ere ez da Jainkoaren maitasun eta errukitik kanpo geratzen. Inor ez du galdutzat ematen, inor ez dago bakarrik eta umezurtz. Bera guztion Aita da. Inoiz ez da gutaz ahazten.

Jesusek, inork ez bezala bizi izan zuen Aitaren maitasunezko jokaeraren atsegina bere bizitzan. Hori dela-eta, seguru senti gaitezela diosku, Berak ere berdin jokatzen duelako gurekin: "Gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbat gehiago ez ote zaituzte jantziko zuek?" (Lukas 12, 28).

Jainkoaren goi-ardura ez da zaratatsua, eta gauza bera gertatzen da gurasoen seme eta alabenganako zaintzekin. Eguneroko gertaeren jario isilean antzeman dezakegu Jainkoaren jokaera samur eta maitekorra. Garrantzitsua da geure buruari eremu eta denbora ematea gure bizitza maitasunez zaintzen gaituen Jainkoaren goi-arduraren argitan osatzeko.

Jesusek bere ageriko giza jarduerarekin agertzera eman zuen Jainko ikusezinaren goi-ardura. Bere hitzak ezbairik gabekoak dira: "Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du" (Joan 14, 9). "Zatozte niregana, nekatu eta zamatuz guztiok, eta neuk emango dizuet atseden" (Mateo 11, 28). "Hauekin izan naizen bitartean, neuk zaindu ditut eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta hauetako bat ere ez da galdu" (Joan 17, 12).

Geuk bizi izandako Jainkoaren goi-ardura horren eraginez, Aita Jainkoak bere seme eta alabei zuzentzen dizkien maitasunezko zaintzak agertzera eman behar ditugu. Jesusek egin zuen bezala, geuk ere zaindu egin behar ditugu Jainko Aitaren izenean, goi-arduraz eta anai eta arreben maitasunezko zaintzez.